

EKONOMIA

Normaltasun berria



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Tubacexeko akordioaz enpresak egin balorazioan, txintik ez borrokaren balioaz. Buruen ahotan, akordioa ona da Tubacex lehiakorragoa delako orain. Auzia ez zen bideragarritasuna, errentagarritasuna baizik. Langileek arrazoi. Zaharrak berri. Baina gehiago ere esan zuten: Tubacex trantsizio ekologikorako prestatuagoa dagoela akordioari esker.

Ekoizpenaren kostu ekologikoa ez da eztabaidagai izan. Industria oinarri izan duen bailararen etorkizun ekonomiko eta sozialak ekoizpen eredua auzitan jartzea eskatzen duela, ezta ere. Trantsizioaren premiaz hitz egin eta erabakiak hartuko badira, ez da izango Tubacexeko eta gainontzeko multinazionalen errentagarritasuna ziurtatuko duen irtenbidea bilatzeko.

Enpresak esandakotik, krisi energetikoaren kostuak (ere) langileen bizkar jarriko dituztela iragar liteke. EAJ-PSE-ren gobernu berekin izan du enpresak helburu horretan, eta hasierako asmoak aldatu arren, lortu du neurri handi batean. Ekoizpen kostuak %18 igo dira urte betean Espainiako Estatuan. Soldatak lau urterako izoztuz, lanaldia luzatuz eta langile kopurua txikituz, langileen gain jarri dira krisi energetikoaren ondorioak.

Ez gaitzeen okertu, arazoa ez da borroka eredugarri baten ondorioz Tubacexeko batzordeak sinatu duen akordioa. Kapitalak boterea du erabakitzeak guk ordaindunok ditugula berak sortzen eta elikatzen dituen krisiak. Legeak neurriak, politika alde eta gobernuak ondoan edukitzeak ematen dion boterea du krisi honetan ere. Aiaraldean inolako konplexurik gabe borrokatu dira botere hori mugatzeko. Aberastasunaren banaketaz, lanaldiaren murrizketaz, pribatuaren kontrol sozialaz edota ekonomian behar-beharrezkoa den esku-hartze publikoaz konplexurik gabe aritzea, hori ere izango da bidea ezarritako normaltasunari *berria* deitzen hasteko. ●

ANALISIA



Gizontasun askotarikoak

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Hasi berri den urrian berri izatea “merezi” izan duten gertaeretakoz batzuetara mugatuta: Urriak 1: Frantziako gizon batek hamarkada batez drogatuta du bere emaztea internetez bere gorputz inkontzientea bortxa dezaten eskaintzeko, bortxatzaileen artean 24 eta 71 urte bitarteko medikuak, suhiltzaileak, kazetariak eta kartzeleroak daude. Urriak 3: AEBetako emakumeen futbol ligako jardunaldia bertan behera utzi dute futbolariak, bi gizon entrenatzaileen jazarpen sexual eta psikologikoak eta erakundearen axolagabekeria salatzen. Urriak 4: Kongoko Errepublika Demokratikora ebolaren aurka borrokatzen ari diren Osasunaren Mundu Erakundeko eta UNICEF, Oxfam eta Mugarik Gabe Medikuak GKEetako 83 gizoni leporatu diete enplegu truke sexua eskatzea, bortxatzea eta haurdun utzitako emakumeak abortatzera behartzea. Urriak 5: 1950-2000 urteen artean Frantziako Eliza Katolikoarekin loturiko erakundee-tan 330.000 adingabek jasan zituzten sexu gehiegikeriak, gutxienez, 2.900 elizgizonen aldetik, gutxienez. Urriak 6: Venezuelako emakumezkoen futbol selekzio-ko 24 futbolariak gizonezko selekzionatzaile ohi baten urteetako jazarpen sexual, fisiko eta psikologikoa salatu dute publikoki. Urriak 8: bi urteko espetxe zigorra Iruñeko taberna bateko gizon jabeari, konorterik gabe zegoen langile zerbitzaria bortxatzeagatik. Kasu bakoitzak du bere konplizitate eta babes sarea, adostasun aktiboz eta desadostasunen omisio erosoaren ehundua.

Gizon auzokideak eta munduaren bazter urrunetako gizonak; gizon eskola-tuak eta eskolagabeak; kontenplazio-gizonak eta akzio-gizonak; gizon gazteak, zaharrak, argalak, lodiak, irribarretsuak, ilunak, atseginak, desatseginak, ezkon-gabeak, ezkonduak, dibortziatuak, aita, aitona, umeak ez dutenak; gizon erlijiosoak, agnostikoak, ateoak; herrialde pobretu eta aberastuetako gizon pobretu eta aberastuak; ogibide lotsagarriak gizonak eta ogibide miresgarriak gizonak; mundu hau aldatu nahi duten gizonak eta mundu hau betikotu nahi dutenak; gizon euskaldunak eta erdaldunak; ezkerreko gizonak, zentroko gizonak, eskui-neko gizonak; gizon matxistak, gizon “apolitikoak”, gizon feministak; ni, zu, hura; gu, zuek, haiek.

Gizontasun askotarikoak; gaitz partekatua. ●